



Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

2017KO OTSAILAREN 1EKO EBAZPENA, GIPIIZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIARENA, ARANTZAZUKO ATERPETXEAN (OÑATIN) ARRETA ETA DINAMIZAZIO ZERBITZUA EMATEKO 003/2016 KONTRATUA ESLEITZEN DUENA

ONDORIOZ: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatoak 2016ko abenduaren 22an adostu zuen Arantzazuko aterpetxean (Oñatin) arreta eta dinamizazio zerbitzua emateko 003/2016 espedientea onartzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzeko, Fundazioak zehaztutako administrazio klausulen pleguen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

ONDORIOZ: Kontratua, duen edukia aintzat hartuta, 2. mailako kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatoak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazio arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) argitaratu ziren. Hala, kontratua prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, Fundazioko Patronatuak horixe erabaki zuelako, hain zuzen, 2016ko abenduaren 22an egin zuen bezala.

ONDORIOZ: Lizitazio-deialdia, administrazio-klausulen pleguak eta baldintza teknikoen agiria 2016ko abenduaren 26an igorri zitzairen prozedura negoziatuan parte hartu behar zuten Ana Peñalva andereari, Joseba Longarte jaunari zein Concepción Moreno eta M^a Jesús Zubizarreta andereei.

ONDORIOZ: Proposamenak aurkezteko epea 2017ko urtarrilaren 16an amaitu zen. Honakoak dira jaso direnak:

- JOSEBA LONGARTE jaunak proposamena aurkeztu zuen 2017ko urtarrilaren 16an.
- CONCEPCIÓN MORENO eta M^a JESÚS ZUBIZARRETA andereek proposamena aurkeztu zuen 2017ko urtarrilaren 16an.

ONDORIOZ: Kontratazio mahaia, Arantxa Ariztimuño anderea (Patronatuaren presidenteordea) buru zuena eta, Mikel Biain Berraondo jauna (Oñatiko Alkatea), Luis María Zaldúa Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) mahaikide zituena eta Alfonso Acarreta Rodríguez jauna idazkari (hitz egin bai, baina bozkatzeko eskubiderik ez zuena) gisa zuena, 2017ko urtarrilaren 31n bildu zen, aurkeztutako proposamenak aztertu, ikuskatu eta baloratzeko.



Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

KONTUAN HARTU DUTE: Kontratazio mahaiak, proposamena aztertu ondoren, JOSEBA LONGARTE jaunari kontratua esleitzea proposatu du, enpresa horren proposamena egokia delako, ikuspegi teknikoari eta kalitateari dagokionez, behintzat, fundazioaren nahiak betetzeko.

Erreferentziazko espedienteak dituen pleguak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak aztertu dira.

EBATZI DUT:

LEHENDABIZI- JOSEBA LONGARTE jaunari (NAN 15372580) esleitzea 003/2016 zenbakidun kontratazio espedientea, Arantzazuko aterpetxean (Oñatin) arreta eta dinamizazio zerbitzua kontratatzeko.

BIGARRENA.- Sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 151. eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesatuek kontratazio mahaiari eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa, hala nola esleipena jasotzeko erabakigarriak diren ezaugarrien ingurukoa.

HIRUGARRENA.- Honako ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei eta kontratazio organoaren profilean argitaratuko da (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>), sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 53. eta 151. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Kontratua jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita hamabost laneguneko epean sinatuko da.

Donostian, 2017ko otsailaren 1ean

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio mahaiko idazkaria

Arantxa Ariztimuño Larraza
O. E. Mahai burua